

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- **1. ariketan**, azterketari bakoitza lau zapabost minutuz arituko da alde zurretik prestatutako gai baten inguruan.
- **2. ariketan**, bi azterketari arituko zarete. Ikuspegi kontrajarriak defendatuko dituzue.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Nor/NANa/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Euskarria: azterketari bakoitzak bere lan esparruari begirako bi aipamen izango ditu aukeran iritzi-azalpena garatzeko. • Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai bera emango zaie azterketariei; bi ikuspuntu, kontrajarriak. Bakoitzak bere ikuspuntua defendatu beharko du. Hasieran banaka, atariko laburra egingo dute. Gero, elkarrizketari ekingo diote, eta eztabaidari. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko edota jarduna orekatzeko. • Euskarria: 2 fitxa. Gai edo egoera bat eta argazki edo eskema bidez, gai horri buruzko ideia kontrajarriak. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	30	15

1. ariketa. Garatu gaia eta eman zure iritzia

- 15 min dituzu fitxa begiratzeko (aipamenak edota aipamen-galderak). Gero, 4 min izango dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundakotik, aztertzaileek galderaren bat egiterik ere bada.
- Ebaluatzean, hauxek hartuko dira kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarria
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

Izen-abizenak

1. aipamena

Mungia herri euskalduna da, baina euskararen erabilera askotan ez da nahi bezain zabala. Hori dela eta, kanpaina bat jarri du martxan Euskararen Normalizaziorako Zerbitzuak. Euskararen aldeko kanpaina hori hiru fasetan egingo da: lehenengo eta behin, Astiuneko Udal Erakundearen (kultura, kirol eta aisialdirako zerbitzuetan) jarriko dute martxan; bigarrenik udaletxera eramango da; eta, azkenik, herriko lokal guztietara zabalduko da (merkatari, ostalari, elkarte eta zerbitzuen artean).

- Azaldu zein diren horrelako kanpainen helburuak eta zure iritzian zer-nolako lorpen-maila izaten duten, herritarrengan eraginik duten, zer nolako jendea erakartzen duten, erdaldunak ere erakartzea lortzen den, etab.
- Azaldu horrelako kanpaina bat antolatuko bazenu zein alderdiri emango zeniokeen lehentasuna eta zein utziko zenukeen bigarren mailan.

2. aipamena

Komentatu aipamen hau eta erantzun azpiko galderari.


“Aspaldi batean euskaraz ez zegoen ohiko joko didaktikorik, logika, hizkuntza eta beste hainbat gaitasun lantzeko. Hutsune hori nabaritu zuen Ikastolen Elkarteak eta bide horri ekitea erabaki zuen 1991. urtean. Egoera asko aldatu da eta onera egin du gainera. Gaur egun eskaintza zabala dago euskal joko pedagogikoei dagokienez; adin ezberdinetakoen artean eta euskarri ugaritan badago non aukeraturik. Alde horretatik euskal jokogintzak maila nahiko normalizatua lortu du”.

- Zenbaterainoko garrantzia aitortzen diozu euskal jokogintzari euskararen normalizazio bidean? Azaldu zein diren euskal jokogintzari ikusten dizkiozun hutsuneak eta horiei emango zeniekeen konponbidea.

2. ariketa. Gaiaren inguruko eztabaida

- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko zenbait argazki eta ideia sorta bat.
- Helburua: iritzia trukatzea, argudiatzea eta defendatzea.
- Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. eztabaidan aritzeko.
- Ebaluatzean, hauxek hartuko dira kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

PROSTITUZIOA LEGEZTATU, BAI



- Prostituzioa kriminalizatzeak sexu-langileekiko **diskriminazioa eta indarkeria** handitzea dakar; legezko lanbidea izango balitz, **babes juridiko eta polizial handiagoa** lukete prostitutek.
- **Bezeroak gutxitzea ez da konponbidea**: denbora gehiago eman beharko lukete kalean, arriskupean, besterik ez.
- Prostituzioa **legezkoa den herrialdeetan** (Herbehereak, Alemania...), errazago jakin litekeenez sexu-langileen egiazko kopurua, **ematen du gehiago direla** gainerakoetan baino, baina **ez da hala**.
- Beste edozein lan bezalakoa da prostituzioa, eta **hautu librea izan liteke**: **pobreziarekin edota immigrazioarekin lotuta** egon arren, ez du esan nahi ezinbesteko hautua dutenik.

PROSTITUZIOA LEGEZTATU, EZ



- Prostituzioa **beti da krimena**, baita baimendutako sexua bada ere. Emakume bat sexu-zerbitzu baten truke eros litekeen bitartean, **inoiz ez** da egongo **genero-berdintasunik**.
- **Prostitutak babesteko** neurririk eraginkorrena **bezeroak, putetxeak eta proxenetak zigortzea** da, haiena baita ardura penal guztia; horrela, eskaria nabarmen murriztuko litzateke.
- Legezko prostituzioak emakumezkoen salerosketa handitzea ekarri du berarekin; beraz, **ilegalizatzea da sexu-trafikoarekin amaitzeko** biderik onena.
- **Inor ez da prostituta borondatez**. Sexuaren industriak **interes hutsez asmatu du sexu-langile terminoa**, prostituzioa gainerako lanbideekin parekatzeko eta atzean duen indarkeria estaltzeko.